# ZUHAITZAK



Leku guztietan daude zuhaitzak, baso, sasitza artean, zelai eta bideetan hazten dira. Hirietako lorategi eta parkeetan ikus ditzakegu eta baita, plaza, kale eta pasealekuetan ere. Era berean, ikastetxe askotako patioetan daude landaturik, baita Ingurugiro Etxeko parkean ere.

Pagoa, haritza, erramua, lizarra, urkia... Zuhaitz ugari daude. Baina zuhaitz horien hostoak berdinak al dira?



Lizarra



Haritza



Urkia



Erramua

1- Aurki itzazu hurrengo hizki- zopan Ingurugiro Etxeko parkean dauden zortzi zuhaitzen izenak:

| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| L | I | Z | A | R | R | A | O | G | A | P |
| W | H | Y | S | A | K | Z | P | X | N | A |
| E | J | M | T | B | T | T | Q | P | E | T |
| R | L | P | I | Z | M | I | S | T | P | A |
| R | G | S | G | D | A | R | R | B | L | S |
| A | O | C | A | U | I | A | K | E | R | D |
| M | Ñ | J | R | P | G | H | P | X | B | L |
| U | E | O | R | Q | Ñ | Z | P | Y | F | E |
| B | D | A | A | K | E | E | K | M | U | K |
| P | L | A | T | A | N | O | N | D | O | A |



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIOAMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

# ZUHAITZAK

2- Parkeko zuhaitz bat aukeratu.
Ikasle taldetxo bakoitzak, hosto bat har dezake eta bere hostoaren deskribapena egin.



3- Egin zazu zuhaitz-hostoaren kalkamonia. Horretarako, landarearen hostoa folio azpian jarri behar duzu, eta arkatz bat pasa folioaren gaineko aldetik. Ondoren, izena jarri.

4- Zenbat zuhaitz mota daude? Asko ☐ Gutxi ☐

5- Urtaro honetan ba al dute hostorik? Bai ☐ Ez ☐

6- Begira iezaiezu adarrei; hostoez gain, beste zerbait ba al dute?Zer dituzte loreak ala fruituak?

Loreak ☐ Fruituak ☐

7- Marraz ezazu, eta gero gelan ea asmatzen duzuen zer den, lorea ala fruitua?

8- Hemen animaliaren bat ba al dabil? Entzun edo begi handiekin ikusi, ea baten bat topatu edo entzuten duzuen.
Non ikusi duzue?

Irteeran bildutako hosto guztiekin hormairudi haundi bat egingo duzue guztion artean. Bertan, bildutako hosto mota guztiak itsatsiko dituzue alboan bere izena jarriz.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIOAMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO